

# UEU-ren udako ikastaroetan izena emateko epea, irekita

Iruñean lau ikastaro eta jardunaldi bat eskainiko dira, ekainaren azken astean

✎ Miren Mindegia  
 Unai Beroitz

**IRUÑEA** – Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) eskaintza zabalera prestatu du bere 47. edizioan, *Elkar Ekin* lemapean, aurreko urteetako arrakasta errepikatzeko helburuarekin. Denetara, 30 ikastaro eta 6 jardunaldi eskainiko dira, horietatik 4 ikastaro eta jardunaldietako bat Iruñean; eta gainerakoak Baionan, Eibarren, Bilbon, Tolosan, Donostian eta Usurbilen. Izena emateko epea jadanik irekita dago eta ikastaroa hasi baino astebe lehenago egin ahal izango da matrikula.

Atzo Kepa Sarasolak, UEUko Zuzendariak, azaldu zuen moduan, ekainaren 20an Bilbon emango zaio hasiera udako ikastaroen edizio berri honi, *Humanitate digitalak: aukerak, erakundearen rol berriak eta elkarlana* jardunaldiarekin. Iruñean, aldez, ekainaren 24tik 26ra bitartean garatuko da eskaintza osoa, kale nagusian kokatzen den Ezpeleta jauregiko egoitzan.

Nafar hiriburuan udako ikastaro programaren baitan egonen den eskaintzaz gain, aurtun, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuarekin elkarlanean sortutako beste hiru ikastaro ere eskainiko dira. Doan izango dira ikastaro hauek, "azpiegitura, antolaketa eta giroa aprobetxatzeko helburuarekin", Edurne Koch, UEUren Nafarroako arduradunak atzo argitu zuen moduan. Kasu honetan, hezkuntza graduko ikasleek lehen-tasuna izango dute matrikulazioan. Kocheak, bestalde, bai Nafarroako Gobernuarekin bai Iruñeko Udalararekin dagoen elkarlan "emankorra"



Edurne Koch, Kepa Sarasola eta Irati Iciar, atzo, Ezpeleta jauregiaren atarian. Argazkia: Unai Beroitz

azpimarratu nahi izan zuen. "Oso pozik gaudela UEUk azken urte hauetan Nafarroan egiten ari den lanarekin".

**ESKAINITZA ANITZA, LURRALDE OSOAN** Irati Iciarrek, UEUko Udako ikastaroetako arduradunak, gai-nontzeko ikastaroen berri eman zuen. Baionan 7 ikastaro eskainiko dira, Eibarren 16 ikastaro eta 2 jardunaldi, Bilbon 2 jardunaldi, Tolosan ikastaro bat, Donostian bi ikastaro eta Usurbilen jardunaldi

bat eskainiko dira. Guztien xehetasunak UEUren webgunean aurkitu daitezke: [www.ueu.es](http://www.ueu.es).

"Azken urteetan gertatzen ari den bezala", azpimarratu zuen Iciarrek, "aurten ere 100dik gora ikastaro proposamen jaso ditugu eta aukeraketa egitea zaila izan da, jasotako ideiak oso onak izan direlako". Iruñean Ezpeleta jauregian eskainiko dira udako ikastaroak eta Baionan, Bernat Etxepare lizeoan, barnetegi moduan. Udako programaren

arduradunak adierazi zuenez, *Elkar Ekin* eta lankidetzaren espirituari zukua atera nahi izan diote, "inoiz baino toki eta elkarlan aukera gehiago sustatuz Udako Ikastaroen antolaketan".

Sei ikastaro formatu desberdin biltzen dira eskaintzan, ikastaroen arduradunak aditza eman zuenez. Ikastaro espezializatuak, jakintza maila zehatz bat eskatzen dutenak; dibulgazio ikastaroak, interes orokorrekoak; garapen pertsonaleko ikastaroak, garapen perso-

nalera bideratzen direnak; jardunaldiak, hitzaldiak eta tailerrak.

"Gure izaeran dago elkargune izatea, eta udako ikastaro ere hori islatzen dute", azpimarratu zuen Sarasolak. "Ikastaro hauek auzolanean antolatzen ditugu pertsona eta erakundeekin, eta elkarlan horretatik ekiten diegu proiektu berriei, jakintza berriei. Eta horregatik, beste urte batez, bere curriculum profesionala zein pertsonala aberastu nahi duen orok izango du tokia gure udako ikastaroetan". ●

## UEU IRUÑEAN

- **Hizkuntzalari Euskaldunen IV. Topaketa.** Hitzetik hotsera. Ekainak 25.
- **Askapen bide(ar)en haririk "Izan ginelako, izango gara?"**. Ekainak 25-26.
- **Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza DBHko Natur Zientzietan:** ingurumenari loturiko proiektuen diseinua. Ekainak 25-26.
- **Ekonomia sozial eta eraldatzailerako erakundearen kudeaketarako tresna eta estrategiak.** Ekainak 25-26.
- **Komunikazio-estilo feminista lantzeko ikastaroa.** Ekainak 24-25

## DOAKO IKASTAROK

- Hezkuntza Departamentuarekin:
- **Harremanak 30: gazteen sexualitatearen esku-hartzea espazio digitalean.** Ekainak 25-26.
  - **Gaitasunetan oinarritutako unitate didaktikoak.** Ekainak 24-25.
  - **Euskararen erabileraren lan-ta ikasgelan HH-LH.** Ekainak 24-25.

## DESKONTUAK

- **Laguntzak.** Iksale, langabetu eta jubilatuentzat beharpenak hainbat udalen diru laguntza tokian-tokiko herritarrentzat, Berri-laguntzentzat eta UEUko bazkideentzat...

# El centro de UNED Pamplona elige a sus delegados de estudiantes

Fermín Arsuaga es el nuevo delegado, Txema Hernández, delegado de Filosofía y Jokin Gómez, delegado de Historia

**PAMPLONA** – El centro de UNED Pamplona cuenta con nuevos delegados de estudiantes. Tras las recientes elecciones a representantes de alumnos/as que se han celebrado a nivel nacional, el estudiante Fermín Arsuaga Egüés ha sido elegido delegado de UNED Pamplona mientras que Txema Hernández Galán será el nuevo subdelegado del centro pamplonés y subdelegado nacional de la Facultad de Filosofía de la UNED. Asimismo,



Txema Hernández, Fermín Arsuaga y Jokin Gómez. Foto: D.N.

han sido nombrados los delegados de dos facultades del centro de Pamplona. Se trata de Jokin Gómez Aldea, delegado de Geografía e Historia, y de Txema Hernández Galán, delegado de Filosofía. La Delegación de Estu-

diantes es el órgano de representación de los alumnos del centro de UNED Pamplona y su función principal es ofrecer asesoramiento a los matriculados y atender las consultas que se puedan plantear. –D.N.

## MONTAJES ELÉCTRICOS NOI, S.A.L.

El Consejo de Administración de la mercantil Montajes Eléctricos Noi, S.A.L., reunido en el domicilio social de la sociedad, sito en la localidad de Mutliva (Navarra), Polígono Industrial de Mutliva Baja, calle F-38, el día 16 de mayo de 2019, ha acordado celebrar Junta General Ordinaria de accionistas de la Sociedad, el día 28 de Junio de 2019, a las 18.00 horas, en el domicilio social de la sociedad, en primera convocatoria, y el día 29 de Junio de 2019 a las 18.00 h, en segunda convocatoria, con arreglo al siguiente:

**Orden del día**

- Primer.- Aprobación de la designación de Presidente y Secretario de la Junta.
  - Segundo.- Examen y, en su caso, aprobación de las Cuentas Anuales correspondientes al ejercicio 2018, formuladas el 30 de Marzo de 2019.
  - Tercero.- Aprobación y aplicación del resultado del ejercicio 2018.
  - Cuarto.- Aprobación de la gestión del Órgano de Administración correspondiente al ejercicio 2018.
  - Quinto.- Adaptación de los estatutos a la nueva Ley 44/2015 de 14 de octubre, aprobación del nuevo texto.
  - Sexto.- Nombramiento de auditores de cuentas.
- De conformidad con lo dispuesto en la normativa aplicable (artículo 272.2 de la Ley de Sociedades de Capital), se hace constar que los accionistas tienen derecho a examinar y obtener en el domicilio social de la Compañía, o a solicitar a ésta que les sea remitida, de forma inmediata y gratuita, copia de la documentación sobre la que ha de adoptarse acuerdos.

Mutliva, 16 de mayo de 2019.  
 Presidente del Consejo de Administración,  
 Javier María Masezu Bergara.

## CONVOCATORIA DE LA JUNTA GENERAL ORDINARIA DE ACCIONISTAS DE INVERSIONES AGRÍCOLAS IMS, S.A

El Administrador Único de la mercantil INVERSIONES AGRÍCOLAS IMS, S.A. convoca Junta General Ordinaria de Accionistas, que habrá de celebrarse en el domicilio social sito en Galar (Navarra) Polígono Industrial Comarca 2, Calle F, nº 12, en primera convocatoria el día 28 de Junio de 2019 a las 10:00 horas, y para el caso de no alcanzarse el quórum necesario, el día 29 de Junio de 2019, a la misma hora y lugar, en segunda convocatoria, para deliberar y resolver sobre el siguiente:

**ORDEN DEL DÍA**

- 1.Examen y aprobación, en su caso, de las Cuentas Anuales, propuesta de aplicación del resultado, y censura de la gestión del Órgano de Administración, todo ello referido al ejercicio cerrado el 31 de diciembre de 2.018.
  - 2.Delegación de facultades para la elevación a instrumento público, formalización, desarrollo, subsanación y ejecución de los acuerdos adoptados por la Junta General de Accionistas.
  - 3.Ruegos y preguntas.
  - 4.Redacción, lectura y aprobación del Acta.
- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 272 de la Ley de Sociedades de Capital y demás normativa aplicable, se hace constar que a partir de la fecha de la presente convocatoria, cualquier socio podrá obtener de forma inmediata y gratuita, los documentos que han de ser sometidos a la aprobación de la Junta General, así como, en su caso, del Informe de gestión y del auditor de cuentas.

En Galar (Navarra), a 21 de mayo de 2019.  
 El Administrador Único de la Compañía,  
 Don FRANCISCO JAVIER ALFONSO MANTEROLA.